

Egileak: Noa Azcarate Rojo, Izeia Gomez Gantxegi, Yara Gonçalves Dhaili, Izar Igarzabal Goenaga, Elene Plazaola Sudupe, Elisabeth Salaberria Felix, Nahia Sasieta Gorostidi

NOLA IRUDIKATU DITU HISTORIAK EMAKUMEAK?

Historiaz hitz egiten dugunean zer datorkigu burura? Gerrak? Hilketak? Konkistak? Pertsonai konkretu baten izena? Kolon? Elkano? Konstantino? Mehmed II? Oroitzen al gara emakumez eta eurek eginiko gertaerez? Historiaz hitz egiten dugunean, beti datorkigu burura Bigarren Mundu Gerra, gerra zibila Amerikaren aurkikuntza... eta gertaera horiek guztiak burutu dituzten pertsonaiak beti edo ia beti irudikatzen ditugu gizonezko gisa, adibidez, soldaduak, konkistatzaileak, buruzagiak... Dena den, non zeuden emakumeak gertaera horiek burutzen ari ziren unean? Emakumeak ezin dira buruzagi, konkistatzaile, soldadu... izan? Zergatik ez ditugu irudikatzen Historiaz hitz egiterakoan rol horietan? Argi ikusi dugu gizartearentzat gizonezkoak indartsuagoak eta trebeagok direla alderdi askotan, aldiz, emakumeak ahulagoak eta eskasagoak. Baina nork esaten du gizonezkoa emakumezkoa baino gorago dagoela edo gehiago direla?

Gure ustez, Historiak ez die sekula eman beraien lekua emakumeei, alde batetik, Historian gizonezkoen gertaerak edo pasarteak zabaldu eta kontatu izan direlako eta bestetik, gizarteak beti irakatsi izan digulako emakumeak botere gabea edo gizonezkoak baino garrantzi gutxiagokoak direla. Izan ere, mendeetan zehar sinestarazi eta irakatsi izan zaie emakumeei beraien betebeharra edo rola, etxeko andreak izatea dela. Historian emakumeari aipamen bat egin zaion bakoitzean, ikuspegi negatibo batetik irudikatu dira, esaterako, Zugarramurdiko emakumeak.

Pausoz pauso, emakume borrokalariari esker, gizarte hau aldatzen ari gara. Garai batean geneukan pentsamendua eta ikuspuntua emakumeekiko aldatzen ari da, ahaztutako emakumeak berreskuratzen saiatzen ari dira eta gara. Garai batean emakume askoren zapuztutako ametsak aldarrikatzen.

Historiako emakume garrantzitsuenak eta bakarrenetakoak erreginak ziren. Gure ikuspuntutik, feminismoak ere Historia ulertzeko modua eraldatu du. Simone de Beauvoirrek dioen bezala, “ez zara emakume jaiotzen, bilakatu egiten zara”. Emakumeen eskubideen aldeko borrokalari honi eta beste arlo batzuetan iraultzaileak izan diren emakumeei esker, esate baterako, Marie Curie zientzialariari, Frida Kahlo margolariari, Angela Davis filosofoari eta beste hainbat emakumeei esker kontzientziatu gara zein garrantzitsua izan den emakumea Historian zehar. Guztiok elkarrekin lan egin behar dugu gizarte bidezkoagoa eta integratzaileagoa eraikitzeko, emakumeen esperientzien eta ekarpenen aniztasuna balioztatuz eta Historiaren puzzle osoa osatuz.

Guk, ikasleen ikuspuntutik, Historia landu ondoren emakumearen presentzia faltan bota dugu. Nahiz eta orokorrean aldaketa handia egon den, oraindik, gabezia batzuk ikusten ditugu ikasketen arloan. Oraintxe bertan Historiari buruz pentsatzen hasten bagara, lehenengo etortzen zaizkigun izenak gizonezkoak direla konturatzen gara, adibidez, Kristobal Kolon, Juan Sebastian Elkano, Karlos I, Karlomagno, Miguel Lopez Legazpi... honek pentsarazten digu, ikasteko materialetan emakumeen aipamen gutxi egiten direla. Hala eta guztiz ere, gure ikastetxean, martxoak 8, azaroak 25, otsailak 11 edota horrelako egun berezietan, emakumeen lanketa asko sakontzen dugu eta horri esker ikasi ditugu zenbait emakumeren lorpenak. Historia ikasgaia, beste ikasgai guztietan bezala, irakaslearen

araberakoa da, hau da, irakasleak sentsibilizazio berezi batekin tratatzen badu gaia, beti saiatzen da aipamen bat egiten horrelako gaiari.

Guzti honek galdera bat sorrarazten digu, emakumeek Historian izan duten garrantzia lantzeko modu bakarra al da egun berezietan gogoratzea edo era berezi batean aipatzea emakumeak? Ez al genuke sentsibilizazio eta begirune hau egunero landu beharko?

Konturatu gara, emakumeak beti izan direla Historiaren zati handi eta garrantzitsu bat, bai anonimoki eta baita nabarmenduta ere. Gauzak aldatu dira, bai, baina Historiako aldaketa horrek berdin tratatzen al ditu gaur egun gizonezkoak eta emakumezkoak?